

Gazteen %96a garraio-txartel bakarraren alde

- Garraio-gastuak aztergai! Txostenean %82,35ak prezioak gazteen egoera ez direla egokitzen dio eta %63,41ak maiztasun gutxi dutela.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) egindako inkestatik ateratako ondorio nagusiak dira.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) *Garraio-gastuak aztergai* txostena aurkeztu du gaur, Hezkuntza lan-arloak eta honen lantaldeak, Hezkuntza Foroak, EAEko ikasleek urtebetean gazteek haien ikasketak burutzeko zenbaterainoko gastuak dituzten jakiteko.

Ondorio nagusietatik nabarmenena gazteek Euskadin zehar egin behar dituzten bidaiak egin ahal izateko garraio-txartel bakarraren beharra azpimarratu dutela da. Zehazki, inkesta erantzun dutenen %77,2a “oso ados” dago neurri hau ezartzearekin eta %18,8a “ados”. Soilik %4a dago neurriaren aurka. Era berean, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoek proposamen bera zuten euren programa elektoraletan. Hori dela-eta, neurriak hartzera premiatzen ditugu garraio-txartel bakarra errealtatea izan dadin.

Argitalpenak, EGK-ko 60 elkarten eta plataformaren sare sozial eta webgunearen bitartez zabaldua izan zen inkestan oinarritua, 100 pertsona gazteren iritzia biltzen du. Bertan, agerian geratzen da ikasleek autobusa asko erabiltzen dutela: %72ak aipatu du haien unibertsitate edo ikasketa-zentrora joateko ohiko garraioa dela.

Hobetze-proposamenak

Azkenik, garraioen prezioak ikasleen errealtatera egokitzearen eskaria maiz errepikatu du gazteen artean. %82,5ak uste du tarifak ez direla egokiak eta, besteak beste, ikasleentzako beherapen espezifikoak eta gazteen bonoak 30 urteak arte heltzearen alde agertu da.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak txostenean zehar jasotako proposamenak (beherago aurkituko duzuen PDFan eskura) instituzioei helaraztea aurreikusia dauka. Horrela, gaian aurrerapausoak ematen jarraitzea da asmoa Euskadi mailan garraio txartel bakarra izatea lortzeko.